



## **KOSTU EGITURA**

Enpresa bat aurrera eramateak zenbait kostu dakartza. Prozesu guztiek gastu jakin batzuk sortzen dituzte, eta gure enpresa gai izan behar da gastu horiei aurre egiteko. Kostu horiek bi motatakoak izan daitezke: finkoak eta aldakorrak.

**KOSTU FINKOAK.** Instalazioen eta salmenta puntuaren alokairua, langileen soldata, mailegua eskatzerakoan interesak eta sistema informatikoa kostu finkoak izango dira, izan ere, produzitutako produktu edo zerbitzu kopuruaren arabera aldatzen ez diren kostuak dira.

**KOSTU ALDAKORRAK.** Produktua egiteko materiala kostu aldakorren barruan joango da, salmenta-bolumenaren arabera izango baitira.